

KANALA

Hainbat alderditan aldarrikatuko dugu gure enpresa, esaterako, sare-sozialak edo egunkariak ikusiko dugu gure enpresaren zerbitzua. Gehien bat interneten bidez plazaratuko dugu gure ondasunaren erabilgarritasuna. Zenbait arlotan ikus dezakegu:

1. Sare-sozialak. (STREAMERRAK)

Gure bezeroak gazteak edo nerabeak direnez, iragarkiak sare sozialetan agertuko dira. 13 urtetik 18 urtera gutxi gora behera. Horrela, beraien aisian dauden bitartean, gure zerbitzuaren berri izango dute eta beraien etorkizunean pentsatuko dute. Hainbat sare sozialetan ikusi ahalko dugu gure iragarkia hainbat modu desberdinetan: Instagram, oso aplikazio garrantzitsu bat da nerabeen artean, influencerren bideoak ikusten dauden bitartean, tartean, gure iragarkiak sartuko ditugu beraien ikasketetan pentsatzeko eta beraien ikasgaietan nota hobetzeko. Bestalde, gurasoek Facebook asko erabiltzen dute gizarteko berriak jakinarazteko, beraz, beraien gazteentzako informazioa plazaratu diezaiekete. Azken aldirian, Tik Tok sare soziala garrantzia asko hartu du gazteen artean eta ordu asko ematen dute aplikazio honen barruan, orduan, bideo interesgarri eta barregarriak egingo ditugu ikasle hauek gure zerbitzuaren nahia sortzeko.

2. Eskoletako eta kaleko ohar taulak.

Eskoletan eta kalean dauden ohar tauletan zerbitzuaren iragarkiak egongo dira. Horrela jendeak gure zerbitzuaren berri izango dute eta bezeroak erakarriko ditugu. Batez ere eskoletan, bezeroak ikasleak izango direlako.

3. Postontzietako propaganda.

Etxeetara propaganda helduko da, postontzietara. Edozein adineko jendeari helduko zaio. Orduan, beraien postontzia begiratzerakoan, konturatuko dira gure zerbitzua zertarako balio duen. Horrela, bezeroen etxeetara azkarrago helduko gara eta gure zerbitzua kontratatzeke nahia sortuko zaie, ikasleen hezkuntza hobetzeko.

Lau baliabide hauetatik, batzuk besteak baino errentagarriagoak eta erabilera hobetuzkoak dute, izan ere, zenbaitek bezero gehiago erakartzen dituzte, gehien bat sare sozialak, nerabe eta gazteek gehiago ikusten dituzten baliabideak direlako.